

Igor Ruiz Agundez ingeniari informatikoaren eskutik, software librearen olatuetan murgildu dira hainbat ikasle Iruñean, UEU Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroen azkeneko txanpan.

Softwareak ere libre izan nahi du

Garazi Arrula. Iruñea

Software librearen inguruan mintzatu dira asteazkenetik ostiralera UEUko ikastaroetan. Teknologia horren oinarritzko kontzeptuak ezagutzeko helburua izan dute ikasleek, eta bai etxeko bai laneko beharrak asetzeko oinarritzko programen berri izan dute. Software librea sukaldaritzaz errezeta batekin alderatu du Igor Ruiz Agundez adituak ikastaroan: «Software pribatuarekin ezin da programa bat barrutik nola dagoen eraikia ikusi, software librea erabiltzean, ordea, bai. Programaz gainera, errezeta ere jasoko dugu, eta osatu». Eginiko aldaketak itzul, zabal eta kopia daitezke, besteak beste.

Asteazkenean ekin zioten ikastaroari, eta eduki teorikoekin hasi ziren. Software librearen oinarriak ezagutu zituzten, eta historian izan duen bilakaeraz ere mintzatu ziren. Osteguneko saioa praktikoagoa izan zen. Aurreko egunean landutakoa ordenagailuetan ikusteko aukera izan zuten ikasleek. Oso ezagunak diren aplikazioen aukera librea erakutsi zien Igor Ruiz Agundezek. Ingeñari informatiko horren arabera, mundu berri baterako atea da software librea. «Monopolioa dela eta, aukera bakarra ezagutzen dugu, pribatua gehienetan. Baina programa gehienek dute euren ordezkotik librea».

Atzo *install party* deiturikoa egin zuten; ikasleek GNU/Linux sistema instalatu zuten, eta zenbait programatan sakontzeko aukera ere izan zuten, oinarri sendoagoak lortzeko.

Softwarea ordenagailu batek exekutatzeko duen programa da, barne argibideak. Oro har, software pribatua da ezagunena, eta bereziki Microsoft Windows deiturikoa. Lizentzia itxia dute pribatuek, eta mugak dituzte, nola eta zertarako erabiltzen diren arautzen dutenak.

Aldiz, software libreak, helburua edozein izanik ere, programa exekutatzeko askatasuna bermatu nahi du. Gainera, programa aztertu eta norberaren beharretara egokitzeko

aukera ere eskaintzen du. Hala, badago, esate baterako, software libreko programak euskaraz jartzea. Programa kopiatzea eta kopiak banatzea ere zilegi izaten da. Esan beharra dago askatasun horiek bermatzeko, lizentzia edo egile eskubideak ezarri behar zaizkiola programa bakoitzari.

Zabaltzekoa aukera

Instalazioak hobetzeko aukera ere badago, eta bertsio berritua lagunen artean zabal daiteke. Software librearen informatika ulertzeko modu bat dela azaldu du Ruizek. «Batzuek askatasunaren ikuspuntuaren aldetik ulertzen dute, gizartearen eredutzat hartuta; besteek teknika aurreratua dela diote, zuk zeuk hobetu baitezakezu; badira beste zenbait ere etekin ekonomikoa baino kontuan hartzen ez dutenak». Izan ere, softwarea librearen izanagatik ere, etekina atera dakioke. Adituaren esanetan, badira enpresa anitz programa libreak egiten dituztenak, eta administrazioei laguntzen diete horiek instalatzen eta erabiltzen; hala, diru anitz aurrezten dute.

Proposamen horretaz gain, teknologiak aparteko lekua izan du aurten UEUren eskaintzan. Bi ikastaro eskaini dituzte sarean. Halaber, lehenengoz egin dute bideo konferentzia bat.

#####

Atzo bukatu ziren UEUko ikastaroak, eta 400 lagun inguru aritu dira horietan

Ekainaren 28an ekin zieten UEUko ikastaroei, Eibarren, eta Baionak eta Iruñeak hartu zuten ondoren lekukoa. Aurtengo ikastaroetan 400 bat parte-hartzaile bildu dira, irakasle eta ikasleak kontuan hartuta. Hasieran 38 ikastaro eskaini zituzten, baina 26k egin dute aurrera, besteetan jende aski ez zegoelako. «Matrikulazioa da urteroko erronka nagusia», adierazi du Irati Iziarrek, ikastaroen arduradunak. Halere, izan da kanpoan geratu den jendea ere, hamabost lagun baino gehiago nekez onartzen baitituzte klase bakoitzean. «Nahiago dugu kalitatea, kantitatea baino».

UEUko ikastaroak orain dela 38 urte sortu ziren. Iparraldean ekin zioten egitasmoari euskaltzale batzuek, maila akademikoan euskaraz ikasteko beharrari erantzunez. Ikastaroen helburua euskaldunen formazioa da, eta etengabeko prestakuntza.

#####

